

# Asisko gutuna

2019ko otsaila.

4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

124. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Esker oneko izatea ez da edozer gauza. Espirituالتasunaren muinetako bat ukitzen ari gara. Esker oneko izateak gizakioi geure tamaina ematen digu: guztia emana dugu, guztia dohainik jaso. Eta horrexek egiten gaitu handi: “Nor da gizakia, Jainkoa hartaz arduratzeko?”

## Gogoetarako gaia

### *Eskerrik asko, anai-arrebok*

Esaten da afektibo dena dela efektibo. Halaxe da, bihotza hunkitzen digun hura garrantzitsu bihurtzen zaigu bizitzan. Eta ingurune guztien artean, giza harremanek dute aparteko lekua. Badira pertsona batzuk, jaio ginenetik geure bizitzan beti presente izan ditugunak: gurasoak, senideak, familia... Horiei esker gara. Ez da beti erraza izan, inor ez baita perfektua, eta zauririk handienak gertukoenek eginak izan ohi baitira. Baina helduak izatera etortzean, haiekin bizitutako guztia geure historiaren partetzat hartzen baldin badakigu, eman digutena eskertzea sortzen zaigu.

Beste pertsona batzuekin, aldiz, bizitzan zehar egin dugu topo. Horietako batzuk gure harremanen ingurunean mantentzen dira, beste batzuk desagertuak dira, harreman estu baten ondoren agian. Harreman horietan guztietan, esku hartu dugu harremanaren sorrera eta garapenean. Opari bat izan dira eta dira, zeren eta harreman horiekin eta horietan joan baikara pertsona gisa garatzen. Eduki izango ditugu hanka-sartzeak eta bat ez etortzeak,

noski, baina horrela joan ahal izan dugu nor garen ikasiz eta akuilagarri gertatu zaizkigu pertsona mailan haziz joateko. Motibo handiak ditugu beraiei eskerrak emateko.

Beste batzuetan, laguntza eta lankidetzat eskatu diguten pertsonak izan ditugu, eta gureak ez ziren giza lurraldetan sartu gaituzte. Baina bihotza zabaldu diguten giza dimentsio eta egoerataraz eraman gaituzte, gure baitatik eta kontrolatzen genituen geure munduetatik ateraraziz. Horrela, agian gogaitarazi, durduzatu eta are asaldatu bagaituzte ere, akuilu gertatu zaizkigu gizatasun handiagora iristeko. Hauek bedeinkazio izan ditugu bizitzan, eta pozteko eta eskerrak emateko arrazoi.

Eta horiez gain Jainkoa daukagu, bere buruaz hitzez edo hitzik gabe bizitzan mintzatzeko jardun zaizkigun pertsonak jarri dizkiguna, beroriek izan direlarik gure mundu pertsonal itxian zirriketua ireki dutenak, Hark munduan duen presentziaren misteriora gure zabaltzeko. Mila esker beroriengatik.

## Bibliako pasartea: 1 Ts 1,2-7

Eskerrak ematen dizkiogu beti Jainkoari zuek guztiongatik, gure otoitzetan gogoan zaituzteguna. Jainko gure Aitaren aurrean gogora dakartzagu etengabe zuen sinesmen ekintzazalea, zuen maitasun saiatua eta Jesu Kristo gure Jaunarengan duzuen itxaropen iraunkorra. Eta zuek gure eta Jaunaren ereduari jarraitu zenioten, atsekabe askoren artean izanik ere, Espiritu Santuaren pozez onartu baitzenuten Jainkoaren mezua. Horrela, eredu gertatu zarete Mazedonia eta Akaiako sinestadun guztientzat.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Batzuetan gizon txit santu honen gogoa Jainkoagana harrigarriro eramana zen eta pozez jauzika jartzen zen bere semeen egintzen usain gozoa iristen zitzaionean. Behin Espainiako kleriko jainkozale batek Frantzisko santua ikusteko eta harekin solasean jarduteko zoria izan zuen. Eta hango anaiei buruz kontatu zizkion berriek bereziki poztu zuten santua.

Bere semeen egintzen usain gozoaz blai, Frantzisko santua ez zen bere baitan kabitzen pozaren pozez. Bat-batean altxatu eta Jauna goستن hasi zen, eta anaien egintza onak entzutea bere harrobide bakar balitz bezala, barru-barrutik egin zuen oihu: «Eskerrak ematen dizkizut, pobreak gidatzen eta santu egiten dituzun Jauna, nire anaien berri hauekin pozez bete nauzulako. Bedeinka itzazu, arren, anaia haiek bedeinkapen zabalez, eta santu egin itzazu dohain bereziz etsenplu onen bidez beren profesio erlijiosoa usain gozoko bihurtzen dutenak» (ik. 2 Zel 178).

Anaiak, Jaungoikoaren dohaintzat hartuak, Frantziskoren bizitza ebanjelikoaren funtsezko parte dira. Haiekin ikasi zuen Jesukristori jarraitzen, ebanjelioa bere bizimodu egiten, anaiarteaz gozaten eta zailtasunei aurre egiten. Haiekin ikasi zuen, esker onez, anaia izaten eta Jaunari pozez zerbitzaten.

## Otoitza

Aita ona, eskerrik asko anai-arreben dohainagatik.  
Zure txeraren seinale dira.  
Lagun niri haiek Zuk maite dituzun bezala maitatzen.  
Jesus, lehen anaia, erregutu Aitari haien alde.  
Gorde gaitzazu elkarturik.  
Ez utzi gutako inor fedearen altxorra galtzen.

Gorde gu gorroto, axolagabekeria eta egoismoaren arriskutik.  
Lagun guri senidetasuna, zuk betirako zeruan hobetuko duzun senidetasuna mundu honetan eraikitzen.  
Maria, gure Ama, gorde zeure seme-alabak beti senidetasunean elkartuak. Amen.

## Gutuneko azken hitzak

“Lur azpiko sustraiek ez dute saririk eskatzen adarrei fruitu emanarazteagatik” (R. Tagore)


## 2019ko otsaileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate otsaileko erreferentzia guztiak:

1 Mk 4, 26-34	7 Mk 6, 7-13	13 Mk 7, 14-23	19 Mk 8, 14-21	25 Mk 9, 14-29
2 Lk 2, 22-40	8 Mk 6, 14-29	14 Lk 10, 1-9	20 Mk 8, 22-26	26 Mk 9, 30-37
3 Lk 4, 21-30	9 Mk 6, 30-34	15 Mk 7, 31-37	21 Mk 8, 27-33	27 Mk 9, 38-40
4 Mk 5, 1-20	10 Lk 5, 1-11	16 Mk 8, 1-10	22 Mt 16, 13-19	28 Mk 9, 41-50
5 Mk 5, 21-43	11 Mk 6, 53-56	17 Lk 6, 17.20-26	23 Mk 9, 2-13	
6 Mk 6, 1-6	12 Mk 7, 1-13	18 Mk 8, 11-13	24 Lk 6, 27-38	

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



Asis Sarea

646 21 48 96

Otsailean elkarrekin ospatuko dugun otoitza 28an izango da 19:30tan